



Gehituk, Eusko Jaurlaritzak 2006. urtean Erabilera Publikokotzat izendatu zuen elkarteak, eta Donostiako Merezimendu Herritarraren 2004 Domina eta Gipuzkoako Giza Eskubideak 2009 saria lortu dituenak, aho batez erabaki du **LATORRIZKO GEHITU 2012 SARIA** ondorengoari ematea:

MARIANO RAJOI JAUNAK ZUZENDUTAKO ESPAINIAKO GOBERNUARI

GIB eta hiesari eman beharreko erantzunean borondaterik eta lidergo politikorik erakutsi ez duelako, Osasun Sistema Nazionalarekin loturik hartu dituen eta giza eskubideak urratzen, gizarte-desorekak sakontzen eta biztanleria osoa arriskuan jartzen duten neurrietan islatu den moduan.

Apirilaren 3an, Gobernuak 2012rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrak aurkeztu zituen, eta bertatik desagertu egin da Hiesaren Plan Nazionalaren aurrekontuaren diru-izendapen argi eta zalantzarik gabea. Neurri horrek behartuta, gizarte-erakundeek eten egin behar izan dituzte infekzioaren prebentziorako eta detekzio goiztiarrerako programak eta itxi egin behar izan dituzte GIB duten pertsonen arreta egiteko zerbitzuak eta zentroak.

Beste alde batetik, Osasunaren Sistema Nazionalaren (SNS) iraunkortasuna bermatzeko premiazko neurri buruzko apirilaren 20ko Errege Dekretu-legearen bitartez, Gobernuak zenbait erreforma egin ditu, hala nola Farmazia-gaien Baterako Ordainketa, GIB duten pertsonak bezalako paziente kronikoentzat ondorio larriak dituen, edota erregularizatuta ez dauden etorkinak SNStik kanpo uztea; neurri horiek jende askoren osasuna, ongizatea eta bizia bera arriskuan jartzen dute.

Aurrezpen ekonomikoak ez du justifikatzen, ezta konpentsatzen ere, gure herrialdean GIBari eman beharreko erantzunean atzera egitea, gaixotasunaren prebentzioa geroko tratamendua baino askoz ere errentagarriagoa baita eta, beraz, aurrezpen hori ez da erreal izango, GIBagatiko infekzio berrien kopurua handitzen baldin bada.

Lidergo politikoak, ezinbestean, berarekin dakar Hiesaren Plan Nazionalaren Idazkaritza (SPNS) indartzea, Espainiak GIBari eman beharreko erantzunaren erakunde koordinatzaile gisa, eta alde batetik, GIBagatiko infekzioaren eta hiesaren aurrean Espainiako Sektore Anitzeko 2013-2017 Plan berri bat prestatzearen alde egin behar du datozen urteetan bete beharreko irizpideak zehaztuz, eta beste alde batetik, GIBari erantzungo dioten Erkidego mailako Planak edo Zerbitzuak egon daitezela edo garatu daitezela sustatu behar du.

Neurri ekonomiko murriztaile horiekin, GIBaren eta hiesaren alorrean hainbat erakunderekin izenpetutako nazioarteko hitzarmenak urratzen ari da Gobernuak, esate baterako, GIB/hiesari buruzko Nazio Batuen Baterako Programa (NBEHIES), Nazio Batuen Batzar Orokorra (UNGASS), Lanaren Nazioarteko Erakundea (LNE) eta Europako Parlamentua (EP).

Gobernuak alde bakarreko erabakiak hartu ditu, autonomia-erkidegoei, zientzia-elkarteei eta gizarte-erakundeei entzungor eginez, eta egungoa bezalako egoera ekonomiko batean GIBari eman beharreko erantzuna egokitzeko beharrezko neurrien inguruan adostasuna bilatu gabe.

